


**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
26n. ZENBAKIA**

**ZEMENDIA
— 1979 —**



**ARRATE'KO AMA!
EUSKALERRIA ZUGANA**

(1979: 50 urte)



70 urte Bizkaiari laguntzen



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL DE BILBAO** 
ONDO ERANTZUTEN DAU

BAI

EUZKADI'k bere eritxia agertzeko erea izan dau eta argi ta garbi agertu be. Euzkadi'k Araudiari BAI esan dautso.

Izan dira betiko alkartu-ezin diranak; baita betiko nagiak, etxetik ez urteteagaitik autarkia emon barik geratu diranak be, baiña geienak emon dabe autarkia, % 60'k, eta emon dabenak geienak, ia guztiak, BAI esan dabe.

• *

Antxiñako errigilleen tentaldia izan zan, «Erriaren alde baiña erria barik» euren lana egitekoa, baiña gaurko euskaldunak, geure jokera zarraren arauz, beste bein agertu dogu «Erriaren alde, baiña erriagaz» geure lana egin gura dogula.

* * *

Egun baketsua izan da urrillaren 25'a.

Ez da entzun dunbadarik, ez aspaldion sarriegi entzun izan dogun ilketen barririk. Autarki-kutxen inguruetan ez da bear izan «txapel oker»ik eta maikideen artean ez da entzun eztabaida gogorrik.

Egun baketsua izan da, zorionez.

* * *

Eta ona enen euskaldunak itxaropen-giro pozgarri baten.

Azpaldion izan ez doguzan eskubideak lortu doguz eta guda-aurrean izan zan baiño giro obean eta itxaropen aundiagoz.

Bide asko agiri dira aurrean zabalik.

Itxaropena dago.

* * *

Orain, arduradunen aukerakundearen arazoa da urrengoa. Zer egingo genduke bideak zabaldu arren, gero arduradun izango diran norki egokiak aukeratzen ez ba'doguz?

**Ba-daukagu erritxi-batze onen aurretik be olako uts-egite larriren bat. Arduradun egokiak, zentzundunak, Erriaren arazoak bide egokitik aterako dituenak bear doguz. Eta auke-
ratze ori garrantzi aundikoa izango da.**

Orain, len baiño obeto dakigu nor nor dan eta aukeratze ohea egin geinke. Jokatu dagigun zurtasunez eta buru argiz aukeratze onetan.

* * *

Eta, zergaitik ez?, begirakunde aztertzailea Leizaola Lendakari jaunari. Beragan dago Agirre zanaren eta antxiñako euskaldunen jokabidearen ezaugarria, beragan gure Erriaren ekiñaldia izan daben larrirunen eta itxaropenen agerpena. Bere eskutik urrengo Lendakariak, jarraipenaren ezaugarri lez, aginpidea artzea, gauza zuzena izango da.

* * *

**Baiña ez gara azken-mugara eldu. Gain batera eldu eta emen egin leiken atsedeen-aldia-
ren antza dauko gaurko giroak. Ez atsedeen larregia, ez norabidea aitzuteko lako egotaldia. Elburutik, jo-mugatik, begiak kendu barik egiten dan atsedeenaldia, ibillaldirako bear diran gauza guztiak atontzeko egiten dan geldialdia. Eta laster aurrera barriro.**

* * *

Elburuan, gutzat ez ba'da be ondorrengoztat, Erri bizia, alkartua, langillea, baketsua, arduratua, jakintsua, aurreratua, errien artean Erri, bere erabagiak askatasun osoaz artuko dituana, bardintasunean eta guztien batasunean bide aukeratutik jarraituko dauana, bere ondasunak egokiro ta zuzentasunez banatzen dakiana... Olakoa izango da EUZKADI.

EZIKETA URTEA

Aspaldion urte bakoitzean ospakizun bereziak ditugu : batean «emakumeen urtea» dala, bestean, aurtan, «umcen eskubide urtea» eta abar, eta abar...

Dirudianez, galdutako edo inoiz izan bako eskubide batzuk eskuratzeko ditugu ospakizun oneik.

Baiña... noiz izango dogu gizarte osoaren «urtea»? Urtea edo bizitza; bizitza obeto, urtea baiño.

Ezbardiñak al gara, ba, bakoitzak bere urtea aukeratzan ibiltzeko?

Edo-ta, urtea amaitzean, zer izango da eskubide orreitzaz?

* * *

Egia esan, bardintasun au teoriar erreza da. Eguneroko bizitzan, ostera, ez da orrela.

Sexu izaerak berak banatzen gaitu bata bestcarengandik, eta gizonezko eta andrazkoen arteko banakuntza garden-garden bat sortzeraiño eltzen gara.

Ostean, banakuntza au dala eta, egi-egiazkotzat artzen diran arrazoi eta jokabide ugari doguz: andrea etxerako da, gizona lanerako eta kanpoko artuemonetarako; gizona andrea baiño gidari ohea da; andre gizona baiño politiko edo injeniero txarragoa; gizona ikerle ona; andrea umezain ona, eta abar eta abar.

* * *

Gure adimenaren aurrerakuntzari esker, gure ezbardintasun oneik gaintzen ari gara, eta sexu aldetik barik, aalmen aldetik aztertzen doguz gizarte barruko artuemon eta lanak.

Baiña oraindik bidean bakarrik gabiltzala esan bearra dogu : ez dogu aurrerakuntza aundirik egin.

Onen ezaugarri ditugu oraindik gauro oitura asko eta asko: ume bat jaiotzean, mutilla bada era batera janzten da; neska bada, ostera, bestetara.

Jolasak aztertu ezker be bardin gertatzen da: neska bat gaixozain jantzitzea ondo ikusia da, ez ostera baloika ibiltzea; orrez gaiñera, neskak garbiak izan bear dira, ezin dabe lurrean itzundu edo jolasean ibilli; mutilla, ostera, apur bat zikin etorri arren ez dauku ainbeste ardura: zer egingo dozu, ba, astokillotxuagoak be ba dira eta...

Baiña nik ez dakit ala diran ala alan egiten ditugun sarritan, gu geu be, euren ereduak izanik, bardin xamarra gara eta.

* * *

Jokabide onetan gizarte barruko banakuntza bat sortzen ari gara.

Bataren edo bestearen «eskubide urteak» gertatzea alperrikoa dogu, banakuntza onetan jarraitzen dogun bitartean.

Eta bere ondoriak nabariak dira, bai lan egiteko orduak, bai etxe bizitzan, ezkontzan, seme-alaben eziketan, eta abar, eta abar.

* *

Ezitzaleen edo irakasle artean bertan be onen ondoriak ditugu.

Ain kritikalarriak gareanok, ain eskubide ikerle eta zaintzailleok be uts bardiñean jausten garalata nago.

Geure eguneroko bizitza aztertzea baiño ez dogu; naiz eta ikasketa bardiñak izan, jokabide ez bardiñak artzen ditugu : andereñoak eskolaurre eta Oiñarrizko Eziketa Orokarreko leen mailetarako dira; gizonezkoak, ostera, beste mailetarako.

* * *

Jokabide onen kritika bat egiten ausartu ezker, emen bai ezin dautsogula Ministerioari errurik bota.

Guk geuk be cz genduke onartuko «emakumeen lanak» egitea.

Onetan ikustea baiño ez dago «praktikak» egitera etortzen diran irekasle barriak. Gizonezko bat eskolaurreko maila batera bialtzea baiño ez legoke! Arra da, eta indargabekoez ibiltzeko ez da gauza.

Sortzeko bai, baiña ostean andrazkoa konpondu daitela.

Au onela izanik, geure buruari itaun batzuk egin bear dautsoguz : sexutik aparte, bardiñak ete gara? Aita eta amaren betebearrak bardiñak izanik, zelan ez dira irekasle eta andereñoenak? Ez al dogu gizonezkoak ume eziketarako geure sentimendu eta instintoa ezi bearririk?

Pediatra bat gizonezkoa izan daitekenean, zergaitik ez eskolaurreko ezitzalle eta irekasle?

Mutiltxoen ametsa aita lakoa izatea bada, ez ete leukee gizonezko batengan aitaren irudia ikusiko?

Onela izanik, ez ete leukeez gizonezkoekaz andrazkoekaz baiño ikasketa obeak egingo?

JOSU LEGARRETA

OARRA:

Irailleko ta urrilleko ZER'en zenbakiai, biai 24'a ezarri dautsegu, eta oker au zuzentzeko, zemendiko oneri 26'a jarri dautsogu. Parkatu utsa eta kontuan artu.

ESKERRIK ASKO!

Abere Alkartuak

ASTOA

Asto zar bat egoan etxe batean, ezertarako gauza ez zala. Eta olan esan eutson morroiak etxeko jaunari:

—Il egin bear geunke asto zar ori, alperrik jaten dau-eta...

Astoak ori entzun ebanean, andik anka egin, eta bidez aurrera asi zan, astiro-astiro. Txakur bat topau eban bidean; eta olan esan eutson :

Zertan ago emen, ezer egin barik...?

—Biar ilko nabela, esan jaus-tek!

—Zer dala-ta...?

Zarra ei nok... Orregaitik nagok ezertarako gogo barik.

—Ator neugaz.

KATUA

Joan, joan, joan..., katu bat ikusi eben leio baten gainean, miau eta miau, ixildu barik. Eta olan itandu eutsoen:

—Katu, Katutxo..., zergatik abil orren estu...?

Etxekoandreak akabatu egin gura nau...

—Zergatik, ba...?

—Txixia arrapau dautsodalako...

—Geu be orrelako atxakiaz gabiltz onela. Eta oba dok, il gura ez ba'dok, geugaz etorri.

OILLAR RA

Joan, joan, joan barriro be irurok batera..., eta oillar bat aurkitu eben sasipean, buru gora ta kukurruku egin eziñik. Eta olan esan eutsoen irurok batera oillar gaixoari:

—Zer dok, txutxu, or sasipean, kuzkur eta makur...?

Zer gura dozue, ba...? Biar ordu onetan lapikoan egon bear joat-eta...!

—Ator i be gugaz. Oba dok geugaz ibilli, lapikoan egosi-egosi eginda geratzea baiño;... bai, milla bidar be!

ARITOA

Aurrera ekin, eta arito bat ikusi eben euren aurrean, ez bee, ez jan, ez jauzirik egiten ez ekiana. Eta esan eutsoen laurok batera:

Zer dok zer..., sekulabedar gozo ori jan nai ezik...?

Zertarako jan...? Gaur zortzi ezkontzen jaku etxeko alaba gaztea, eta zarrast egingo nabe ezteguetarako.

Ator i bere geugaz; eta biziko az !

LAPURZULO'N

Ibilli ta ibilli jardun eben, gaueko amabiak arte. Eta argi bat ikusi eben, ordu orretan, lapur etxeko leio batean. Txakurra zaunka asi, ta ostendu egin ziran arittoa ez beste abere guztiak.

Eta talka ta talka asi zan arittoa, aurreko ate lodiaren aurka. Lapurrak ikaratu, guztiz ikaratu..., eta anka egin eben andik, beste lapur taldea zalakoan.

Aritoak, bitartean, talka ta talka etxeko atea apurtu, ta aurrera sartu ziran abere guztiak.

Astoak uzkar andi bat egin, eta bertoko argia amatau eban... Orduan, abereak lekuri ego-kienak aukeratu, eta berton kokatu ziran... katua, su-ondoan; oillarra, ondoko otan; txakurra, ate - atzean; arittoa, eskaillara-

pean; eta kortako ate-ondoan, asto zarra.

LAPUR-BURUA ZULORA

Ixil-ixillik geratu ziran abereak. Lapurrak baiña zaratea zer izan zan jakin nai, eta zotz egin eben nor joango zan etxera barriro...

Kapitana, ain zuzen be, izan zan aukeratua. Sartu da ixil-ixillik; ba-doa astiro-astiro... Eta berton ostendurik dagoan katugaz egiten dau topo. Katua bat batean zutundu, ta sekulako arramazkadea egiten deutso lapur ibiltariari.

Zutitzen da lapurra, an nor dabillen ikusteko...; eta zast! oillarrak bere ezproin zorrotza begietan sartu...

Asi jatzu lapurra ariñeketan, andik lenbailen urten nairik; eta txakurra ate ondotik jauzi, eta aaau!, agin guztiak sartzen dautsoz.

An doa karraxika lapur doakabea eskaillaratik gora... ; eta izugarrizko talka artzen dau atzeko aldetik, eperdi erdi-erdian.

Berantza asten da, orduan, zorigaiztoko lapurra, eta kortara abiatzen; eta artara sartukeran, zast!, ostikada bi emon eutsozan astoak, or doa anka gora, eta lurra jotzen dau bere buruagaz.

Doi-doi eldu izan zan bere lagunengana. Eta oneek euren kapitana era orretan ikusirik, bildur-ikareak artu, ta anka egin eben andik, beingo batean.

Ori nai genre abereak... ! Eta argi guztiak ixioturik, etxe guztia arakatu eben. Laster aurkitu eben lapurrak itxitako aparti gozoa. Eta zurru ta purru, beingo batean iruntsi eben dana.

ESTONBA'tar Manuel


AIXE - ERROTAN

Ogeiren bat urte izango dira, Aixerrota'ko lauki margodun polit bat etxean dakadala.

Aurten Aixerrota'n bertan ospatu doguz, bere inguruko landa zabal ederretan atan be, gure Eusko-Alderdi-Jeltzalearen ospakizun go-gangarriak.

*

Euskalerriaren irrintzi itxaropentsu pozgarria egin genduan bertaratu giñan guztiok.



Agirre'ren Alarguna ta Irujo Alduna

Gure Alderdi-eguneko jaiak ge-roago ta arrakasta aundiagoaz doaz. Urte bi dira geure Alderdi-barruko indar bizia inguruko ta kanpoko guztiai Aralar'en agertu geuntsela.

Franco-Aldiko mendi-zulo luzetik, bizirik eta arnas-barriturik urten giñan.

Igaz, Gazteiz'en, Olarizu'ko landetan, auteskundera irabazteko lain ba-giñala adierazo geuntsen, bai Madrilleko agintariai, baita ezkereskumako gure arerio eskutu ta agiriai be.

Aurten Araudia, Estatutoa, lortubearrean gagoz eta lerro oneik argitaratu baiño lenago jadetsiko dogula, ziur nago.

Berein eragozpen eta oztopo izango doguz gure bide arantzatsuan, baiña erri bizi bat lez ibilli ta jokatuturik, gainduko doguz dan-danak. Jarraitu dagiegun gure zuzendarien oarrai, eta datorren urterako eskeiñi dauskuen lez, Lege-Batzar euskalduna, diru - itunpenak eta abar geuganatuko doguz.

Guzti au, dakizuenez, bidea jorratzea ta garbitzea baiño ez da. Bide zuzena, arteza, joan dan gizardian galduriko buru-jabetasuna errezago lortzeko bide egokiena da ori.

* *

Aurre - egunean zezen - enparantzan egon ondoren, igande-goi-zean, berebil aundietan, euskal abesti ederrenetarikoak abestuz, Getxo'rantz abiatu giñan.

Bidean zear, notintza izugarria, ikurrin, sama-zapi, ta guzti, oiñez Galea-alderuntz.

An, goizean goizetik asita, nabaritzen ziran poza, itxaropena, barruko bakea, anaitasuna.

Ezagun gitxi, eta guztiok ezagun, guztiok anai.

Eskalerriak asko be asko jasan dau, baiña oraindiño itxarrik eta zur dago. Ez da etsi bere elburuaren billaketan. Bere buruzagiakaz, guztiok gizon bat lez, urriñera joateko gertu dago. Europa'ra goaz. Batu gaitezan gura eztabaidak bein betiko itzita.


Y *

Gure Bilbo erdi-erdeldunduan bizi garanontzat, edonon nabaritzen zan euskal arnasea.

Ainbat eta ainbat notin euskera errikoi gozoan, bai bizkaieraz eta bai gipuzkoeraz berba egiten.

Benetan pozgarria ta aztu-eziñekoa zan ango batzar gizatsua!

Izlari euskaldunak, Arzalluz batetik eta Garaikoetxea bestetik, erderaz be berba egiñez eta askoren eritxiz, luzeago ta sakonago.



Aixerrota'ko Alderdi-Eguna

Lafite jauna, Iparraldekoa ta euskaltzain osoa be bertaratu zan. Zer esango eban bere artean euskalkiak ain bizirik ikusiaz eta batua iñork be ez ebalta erabilten susmatuz?

Ez gara batuaren aurkakoak, benetako batu on baten bearren aurkitzen gara. Bizkaiera betez

be ezin leike laguntasun barik bertan bera itzi.

«Bai Euskera»ren ekiñaldietan diru guztia batuaren alde bakarrik doa eta «Euskerazaleak» Alkar-teak, «Derioko Ikastaroak», «Kardaberaz Bazkunak» eta «Deustuko Izkuntza-Eskoleak» ez dabe diru apurtxu bat be jasoten. Bardin esan geinke Aita Santi Onaindia'ren lan goragarriaz, Dirua geiago banandu bear litzake.

Azkeneko orduan, berebil aundien inguruan jazo jatan gertakizuna, amaitzeko. ZER gure aldizkariaren zabalpena argitzeko da.

Donibane Pasai'koak agurtu ginduezan etxeratzean euskeraz eta nire taldeko Bilbo'tarrak erderaz erantzun eutseen. Nik, orduan, parte arturik, euskeraz egin neban eurakaz.

Gipizkoarra nintzan itaundu eusten, eta nire erantzuna, Bilbotarra nazela izan zan eta nire aita Oñatiarra, gaztetan Urbia'ko landetan artzaiña izana eta bizkaieraz berba egiten ebana.

Euretariko emakume sasoiko batek, Bizkaierazko ZER illerokoa irakurten ebala esan eustan eta nik orduan Arregi'tar Josu'ren izenaz idazten nebala jardetsi. Poz aundia artu eban benetan berak, irakurtetik nine izenaren barria ba-eukan-eta.

ARREGI'tar Josu'k

Oraina eta geroa

Gure egunetan eriotza-gaiak ba-dauke erriaren adipen (*) eta ardurea, baiña ez ainbeste eriotzea ondo ulertzeak eta bere esangura sakonak.

Zertan ete dago guzur-antz edo paradoxes (*) ori? Egitez eriotzearen esangureari adipen (*) edo ardurea emon jako, arimen artzainak euren berbaldietan.

Gogo-artzainak eta katekesisaren irakasleak egoera txarrean aurkitzen dirala uste dot. Alde batetik eriotzea ur dagolako eta bestetik jakitunen burutasunak sakonak eta ulertzeko gatzak diralako. Orrelan erlejiñoaren mezua (*) ta baikortasuna (*) ezbaian geratzen dira.

Orregaitik, euren bizibidea ori dalako, besteai berba egiteko, besteai itzaropena emoteko beartuta dagozenak, eriotzeari buruz berba egiteko era txarrean dagozela uste dot.

Eta ez da adipenik (*) emoten ez jakolako, jakintsuak emoten dautsoe adipena (*).

Ez da gogo-artzainak eta erlejiño-irakasleak gai orretzaz ardurarik artu ez dabelako. Ardurea artzen dabe, eta aundia artu be.

Jazoten dana au da: Bide-kurutze onetan zalantzan dabizela eta berba zeatzak eta jakintsuen argitasunak ezin dabezela aukeratu. Eta ortik sortzen diran pastoral-ondorenak bear-bearrekoak dira.

Gure eritxiz, buruausterik geienak barru-barrukoak dira, eriotzearen irakatsia oso-osoan artzeko gertu ez egotetik datozenak.

Eskuz-esku (*), zarrakandik artu dogun kristiñau izakerea, gogo-alderdikoa da eta zentzunez diñosku eriotzeagaz aurkeztuteko ez gaitzela izan goiko gauzetan irabazirik ez dauken gauzen zaleak.

Zenbat eta geiago joankor (*) eta igarokor (*) diran gauzetan sustraitzen garan, ainbat eta samingarriago egiten jaku eriotzea ta etorkizunaren ikuspidea.

Gure aoz-aoko (*) edo aurrekoakandik artutako gogarteetan, eriotzea gogoratu bear genduala esaten euskuen. Euren asmoa au zan: Eriotzearen gogarteak guretzako duin edo gure maitasunaren adipide lain (*) ez diran gauzak, Jainkoaren elburu (*) zati bat lez, eroango gaituela.

Orduan, bere ikas-maian buru-azurra ipinten dauan praille baten antzera.

Orixe, bete-betean.

Baiña beste au be ba-daukagu: Ezagutzen ez dogun zerbaiten bildurra. Eriotza-ostetik iñor ez dala etorri eta beste aldean zer dagon ez dakigula esaten dogu.

Eta baten batek itaun au egiten ba'dau: Zergaitik ll bear dot? Zergaitik ikusi bear doguz eriotzearen azkenengo ondorenak?

Izan be, edozein alditan ll leitekezala jakiteak, arrisku-egoeran bizi diranai biozkadea (*) emoten dautse.

* *

«The Catholic Spirit»eko Zuzendariak, bein, Luther King'en ministru baltz bategaz berbaldi bat eukan.

Onek esan eutson Luther King'ek berak bere lagun aundi bategaz sarritan berba egin ebala eriotzeari buruz. Eurak ba-ekien ustebako (*) edozein unetan tiroka ilgo zirala.

Atsekabez, urduriz, larri ta estu egozala esan eustan, batez be euren zori txarra jakin ebenean, garai-aurrez eta gogorkeriz eurak ilgo zituela ikusten ebenean. Baiña beste au, be esan eustan: Atsegiñez eta bare Egozala, emondako berbea betetako asmoa artu ebenean.


Benetan eriotzearen izate osoa jakin eta beragaz aurkeztuaz, aregandik iges egin barik, bakea egiten danean, orduan norbera be norberaren buruaren jabe egiten da.

*

Eriotzea bizitzearen azkena da, baiña «azken» berba au ondo ulertu bear da: Elburu lortua, osotasunera el-tzea, betetasuna gugandutea da (*). Egizko jaiotzaren ordua da. Osagille-ikasle bat bere ikasketen azkenera eltzen danean, diño: Eldu naz azkeneraiño, orain osagillea naz.

Eriotzeak igaro-aldi baten ausigune (*) kraskadurea marratzen dau; aldi ta betiraun (*) artean zatiketa bat egiten dau.

LETONA



- (*) Adipiden = Comprensión
 Guzur-antz paradoxa = Pa radoj a
 Mezu = Mensaje
 Baikortasuna = Optimismo
 Eskuz-eskuko = Tradicional
 goankor = Percedero
 Igarokor = Transitorio
 A goz-agoko = Tradicional
 Elburu = Dieta
 A dimen = Inteligencia
 Biozkada = Impresion
 Ustebako = Imprevisible
 Gugandu = Adquirir para nosotros.
 Abere = Animal
 Betiraun = Eternidad
 Jo-muga = Objetivo, termino

ITXASKARIA

Euskaldunak eta itxasoa! Zenbat eta zenbat idatzi leiken onetzæ

Onetzaz daragoio «Petronor»'en babespean aurten argitaratuta ikusi dogun idazti mardul jakingarriak.

Bosteun orrilade ditu eta euskal idazle trebe ta ezagunen eritxiz omiduta dago.

Besteak beste, Altuna, Barandiaran, Busca Isusi eta Garo Baroja'k artu dabe parte eta azgazki bikain-bikain askoz apaiundu ta txukundu Sigfrido Koch argazkari ospetsuak.

«Itxaskaria» idaztian gure arrantzale ta itxas-gizonen oiturak eta itxas-ago ta erri jakintza bitarteko, eurengandik geureganatuak izan diranak aurkitzen doguz.

Bertan itxas-zaletasuna ta lurbira osoko itxasoak zeartzeko bear diran adore ta kemena eurak damoskuela argi dago.

* *

Iru itz-aurre polit daukoz eta ondoren idaz-lantxu bi.

Bata, «Kondaira-aurreko» Euskal gizona itxasoaren eta ibaien aurrez-aure, Barandiaran'ena ta bestea «Edesti aurreko gizaki euskalduna ta itxaso», josu Altuna'rena.

Barandiaran jaunaren eritxiz, aspaldi danik euskalduna itxaso ta ibai, zingira ta iturriakaz baliatu da.

Orrez gaiñera, ipuin eta alegien ikuspegitik, zer oneik borobildu ei ditu berak.

Adibidez, «Traganarru» edo itxasuren zirimula izugarria gure asabak uste eben itxas-abere edo mamu zatar itxusi batek sort-arazi ta itxasontzi ta marinela bat-batean iruntsi egiten ebazala.

Altuna'k, ostera, len-euskaldunen lanak azterkatuta, arrantzuan eta maskulu-billaketan egienak batik bat begiratzen ditu.

JULIO CARO BAROJA **«ITXASKARIA»'N**

Idaztiaren benetako guna ta mamiña emen daukagu, Baroja'ren Ian luze ta garrantzitsuan.

Azalburu bi ditu lan eder onek.

Ona emen lenengo azalburuaren idazpuru batzuk:

—Itxas ezezagun Galen ikerketak: Mito edo ipuin-edestitik lutelestira.

Merkatariak eta itxas-lapurrak.

Baiona, Gotzain, jauntxo, salerosle ta arrantzale-uria.

Balearen arrantzua.

XIX gizaldiko itxas-gudak.

—Folklore pizka bat eta abar. Bigarren azalburuaren beste idazpuru batzuk:

—Larri-aldiko egoerea ta alkargo ospetsuak.

Makallauaren sukarra.

—Notiñak erreskadan.

—Kosmografiz, itxasontzi-egille ta gudariak.

Sal-erosketak.

—Legea ta Itxas-lapurketak...

Baroja'ren Ian aberatsean euskaldunen gizaldiz-gizaldiko itxas-ikuspegiak argiro ikusten doguz. XI eunkian, Baiona'k indar ta armas berezia dauko eliz-barruti ta itxas-kai lez.

Akitania, alde betetik eta Naparroa ta Gipuzkoa ego-aldean bestetik, euren bizi-ardatza lez, Baiona dauke.

Baiona-aldeko sal-erosle ta guztiriko merkatarriak, ingurumari betetuten dabez.

Laster ikusiko doguz Gipuzkoa'n beste kai eder batzuk. Olan aurrerantzean Donosti, Ondarrabi, Getari ta Motriku'ko kaiak ezagunak izan dira.

XIII eunkian lemak, gaur eguneko itxurazko ta tankerazko lemak, lenengoz agertu ziran. Eta itxas-ontziak aundiagotzen doaz.

Andik gerotxuago, gure arrantzale ausartak baleen arrantzuan jo ta ke diardue. Lenengo ta bein gure itxas-bazterretan; gipuzkoarrak eta Bizkai' tarrak ia batera doazela.

Ondoren, emen balea urritzen eta urrintzen danean, eurak be urriñago doaz, bai Galizi-inguruko itxas-aldera, baita be azkenik Terranoba-aldeko lurraldeetara.

Ameriketako Terranoba ugarte aundi onetan, ainbat eta ainbat euskal izen aurkitu leitekez.

Colon'ek baiño eunki batzuk lenago euskal arrantzaleak Amerika, Goi-Amerika berariz ezagutu arazi ta agertu euskuen.

ORAINTSU

XV gizaldia, guda arazoz beteturik, dago.

Bere azkenaldian batez be, euskaldunak itxasoen era guztietako era-soaldiak jasan bearrean aurkitu dira.

Baiña ez dira kikiltzen eta XVI gizaldian Bizkaia'ko ta Gipuzkoa'ko olak Janez gaiñezka aurkitzen doguz.

Euren itxas-ontziak atzerrira be saltzen ziran.

Eta zer esan, orduko itxas-gizon parebakoetaz?

Oraindiño ez da idatzi Getari'tar Elkano, Lope de Agirre ta beste itxastar euskaldun jator askoren guda-edesti edo epopeia osorik. Noizko izango ete da?

Gaur eguneko arrantzaleen zori txarra be Baroja jaunak aitatzen dau amaieran.

Bere ta gure ustez, laterrien norberekeria, arrantzurako ipiñi dauskuezan baldintza gogorregiak, esaterako berreun milla-legea, dinu-zigorak eta beste eragozpen batzuk, benetan neke-tsua ta aldatz-gorakoa egin dabe gure mariñelen berebiziko Ian gatxa.

«Itxaskaria» gure liburutegian eukiteko idazti gogoangarria da. Eta geiago esango neuke: itxastar euskaldunen kondairea ezagutzeko, guztiz premiñakoa dala.

Nire esker onak «Petronor»'eri eta beste laguntzaille guztiai. Olango liburu asko bear doguz. Tamalez geienak erderaz dagoz. Ia idazle euskaldunak ugaritzen diran! Geroa gure izan daitela. Ia orretara goazen.

A'tar Jo'k

EUZKO-ARAUDIA

Euzko Aberri samindua,
zu zara lora bakana,
eun da berrogetamar urtean
adi euzkotarrena.

Geroz, ezin dut kendu arantza,
ama, olan, ikusita,
odolaren odol ta maminak
laidoz ta kateiz josita.

Olerki garra bear zenduan
kateiak urratzeko,
Lauaxeta, Lizardi, Orixe,
onak ziran askatzeko.

Baiña zure seme ta alabak
esnatu ziran goizian,
Aberri zoritxarra ikusten,
bizi dena il-zorian.

Aberri maite bereziena,
euskaldun zalea ziñan,
euzko gazteak odol beroa
opaldu eutsun mendian.

Geroz, seme leial ederrenak
ez dabe ezer ukatu,
adiñez, biotzez eta itzez
nai zinduczan askatu.

Euzko lurra, arkaitzez josia,
aitzak bezela dira,
gizon ta andra, zure semeak
euzko lurrari begira.

Gaur, euzkotarra, zure nai dana
emon eiozu amari,
izatez, zure bizi osoa
zor deutsazu-ta berari.

Ainbeste irain zergaitik dator
gizon onenen gaiñera,
zure miñak mintzen nindun, ama,
biotza jausiz lurrera.

Zure gogoa, egi ta itza
bear ditu ama onak,
zuk aterako dozuz aurrera
amaren bear izanak.

Amaren mifia arindu zeinke,
entzun Aberri oiva,
erri bizia zabaltzen doa
Gernikar arau zantsua.

Euzko mendi, ibar ta ibaiak
karraziz dagoz aurrean,
guztiak Gernikara begira
Estatuto izenean.

Askatasunak eskatzen deutsu
Gernikar Estatutoa,
euzkotarra, gaur, Euzkadik nai dau
zure egizko botoa.

PAULIN

LUMIA

IBILTEN POZIK

Beti izan naz ibilten zalea: Izadiaren edertasuna ikusi, gizonen lan ederrak aztertu, munduan diran askotariko bizikerak ezagutu... Baiña, zori txarrez, ibiltaldi luzeak egiteko dirua bear, eta ezin. Eskerrak nire ama zanak berak aurreratutako zerbait itzi eustala. Ibil-aldi gogoangarri bi egin al izan dodaz.

Igaz, Erdi-Amerika'ren zati batzuk ikusi al izan nituan, ZER onetan esan neban lez, eta aurten... beste ibiltaldi gogoangarri bat: Sondika-Madrid-Erroma-Jordania-Lur Santuak-Ejipto-Grezia - Madrid - Sondika. Orra or amabost eguneko ibiltaldia, dagonillaren amazpitik ogei ta amaikara, Europa, Asia ta Afrika ikutuz.

Nire pozean eta atsegifician irakurleak kideko izan daitezcan, labur-labur edestuko dodaz ibiltaldi onen zeartasunak.

ERROMA ARROA

Sondika'tik egazkadea egin ondoren, urrengo goizean Madrid*en lagunakaz alkartzeko, gaba an igaro bear izan neban. Orduak luzeak ziran-eta, QUO VADIS pelikula ederra, ibiltaldirako egokia ikusi neban.

Goizean Barajas egazkin zelaian aurkitu nituan ibiltaldiko lagunak : Galizia'tarrak, Leon'darrak, Andaluziarrak, Balentzia'tarrak, Avila'tarrak, Naparrak eta Bizkai'tar bat.

Ajentziak oso ederto lan egin eban. Euroturist bere izena. Uri guztietan iru lagun izaten genduzan geu zaintzeko: gugaz beti joiana, sartzaillea edo transfer eta erakuslea edo gidaria.

Erroma ezaguna neban, baiña gabez eta egun ez ederto ikusi genduan barrero. Iñoz baiño geiago atera neban ErromaTarrak arroak izan diralakoa, len eta orain eta beti, baiña asmapen orren gaiñetik, an aurkitu neban ludi guztiko kristiñauen batasunaren ezaggarri ta egille dan Aita Santua. Castel Gandolfo'n, bere ondoan ordu-erdi zoragarria igaro genduan. Izan be gure Juan Paul II'a, maitekorra ta maitegarria dogu. Antxe agertu euskun Txina'ri buruz eta Ginea'ri begira berak eukan ardura aundia.

*

JORDANIA'N GIRO BARRIA

Erroma'n iru egun egin ondoren Jordania'ra.

An beste giro bat aurkitu genduan: txirotasuna, izkuntza ez-ezaguna, jantzi iñoz ikusi bakoak eta, batez be, asko arritu ninduan arrabiarrak izten dabe usain txar berezia. Etxeak txikiak eta tellatu bakoak, inguru guztian basamortua, area ta atxa, eta zazpi muiñoren gaiñean sei milloa biztanle. Erregea jau-retxe ederrean eta aundikiro, erritarren maitasuna dauala.

Eta noizean bein Almoazin'en deia, gau ta egun, otoiitz egiteko.

Egun bat egin genduan an, zer ikusi aundirik be ez dago-ta.

LUR SANTUETARA


Bide guztia egazkin ederretan egin genduan, baiña Jordania'tik Jerusalem'era joan etorria autobusetan, arabeen autobus zarretan eta Israel'darren autobus eder eta egokietan.

Bide naikoa luzea eta dana basamortuan, noizean bein beduino batzuk baiño beste bizikirik ikusi barik.


Israel'era sartzeko, Jordan ibaiaren gaiñean zubi zar bat eta inguruetan burdin-ariak, metralletak eta gudariak ugari. Guda-giroa arin asmetan da an.

Sarreran gure zorroak ondo arakatu euskuezan eta orretarako lau bat ordu egin genduzan aduanan.

LUDIA i



Erroma, uri ondo apaindua, lan ederrez betea, arroa.



Jordania, basamortuz inguratua. Petra'ko uri zarra.



Samari'tar andrearen osiña. Arabiarrez inguratuta. Ez dago ikusterik.

Lenengo uria, uri zarra, Jeriko. Palmondoz apainduta, baiña basamortuz inguratuta. Zortzi milla urtetik gora dituan un zarraren oiñarriak aztertu genduzan. Piñupe baten bazkari egogia, edo jateko lakoa beintzat.

Gero, Betania'n Lazaro'ren etxea ikusi ondoren, Orio-Mendi-ra eta andik Uri Santuaren ikuspegi ederra.


Antxe ondoan egoan PALACE gure ostatua. Zenbat gauza gogoratu nituan orio-artean gabez egin neban ibiltaldi aretan!

*


URI SANTUA

Ba-dago Jerusalem'en eta inguruetan kristiñauen-tzat zer-ikusirik naikoa: Erosta-ormea, eta gaiñean antxiñako jau-retxearen ormak eta orain Mezquita biak (oiñutsik sartu giñan), Neke-bidea arabiarren dendaz bete-beterik, Kalbarioa edo Buruazurtegi-

KUSTEN



Tiberias'ko itxasoa.
Ostean Golan'go
mendiak.



Ejipto'n, txuntxurak
eta esfinjea.



Atenas'eko
Akropolis'en Kariatides
age-andrak.

gaiña eta an Kristo gure jaunak bere bizia gure alde emon eban tokia, beratxuago illobi santua; Belen... Museo ederra, Jerusalem barria ta «parlamentua», eta abar... Belen'en Aita Añibarro Zeanuri'tarra.

Baiña Jerusalem be basamortu antzekoa ta toki txiroa da. Orio-landarak kendu ezkeru an ez da agiri ibiltariena ta sal-erosleena baiño beste irabaz-biderik.

Itxaso illa ta Kumran be ikertu genduzan.

» * z.

IPARRALDERANTZ

Israel'ek iparralderantz daukaz lurralde aberatsagoak eta gaur egun guztiz ondo zainduak. An dagoz kibutzik geienak, baiña gai au ZER onetan beste idaz-lan baten aztertuko dot.

Tabor-mendia, toki zoragarria. Gure autobus aundiarentzat bidea estua zala-ta, taxietan igon bear izan genduan. Andik ikusten dira lurralde aberats eta emonkorak.

Nazaret. Jose deunaren aroztegia. Andra Maria'ren etxea. Andra Maria'ren iturria gaur errira ura ekar-teko legortuta. Nazaret be lurralde txiroa da. Aita Artaraz Zeanuri'tarra oporaldian egoan.

Antxiñako Tolemaida edo San Juan Akre, bere gaztelu ederra, luperko zulo luzea eta krutzedunen aldiko gomutakiak.

Itxas-ertzetik egoalderantz Israel'darren langintza, batez be arri baliotsuena. Kanpotik ekarten dabez, Ego-Aprika'tik batez be, eta an landu ta saldu.

Lagintza au da Israel'en lenengo aberastasuna, ibiltaritzza urrengo eta lugintza irugarren.

Kermel Mendia, toki ederra benetan eta mendi onen aldatzean baratz ederrak zaintzen dabez izadi-erlejiñodunak. Euren eleiza polita.

Itxas-aldeko Zesarea, Pontzio Pilato'ren bizi-tokia bere antzoki ederra osorik dauala.

Tel-Aviv uri ederra, itxas-ertzean.

Tokirik politenak, Tiberias-itxasoaren inguruakoak dira.

TIBERIAS'EN

Kristo'ren bizitzako ekiñaldirik luzeenak, Tiberias-itxasoaren inguruan izan ziran.

Itxas-ertzean, Kafarnaum eta berton San Pedro'ren etxea eta uri zarraren gomutakiak.

Ogi-ugaritzearen eleiza zarra baiña ikusgarria, eta Zoriontasunen Mendia ikusgai izan genduzan.

Barrirto Jerusalem'era eta andik Ain-Karin edo Juan Bateatzaillea jaio zan tokira eta geiago barik, barrirto areatarik areatza, Jordan Ibaiaren gaiñeko zubi zarretik Jordaniara.

Emen izan genduan ibilladiaren egon-bearrik aspergarriena. Zortzi ordu itxaron bear egazkin-zelai nekegarri aretan egazkiña etorri arte!

EJIPTO'RA

Lur Santuak ikusteko neukan guraria zan bi-ziena, baita Piramideak eta Atenas'eko Akropolis ikusteko be.

Ejipto basamortuan dago. Txiroa da. Nilo inguruan lugintza ugaria dauka, baiña alde bakoitzera bostetik irurogeta bost km'ko zabaleran baiño ez. Ortik kanpora eremua da dana eta toki batzutan palmondoak baiño ez dira agiri.

Ikusi genduzan bai, piramide edo txuntzur ikusgarriok eta esfinjearen begien aurrean bazkaldu be bai.

Gero ganbelu baten gaiñean ibillaldii gogoan-garria, aurrean arabiar ugazaba bati diru eske genduala.

El Kairo'ko museoa be benetan ikusgarria da, batez be Tutakamon'en illobiko kutxa aundiak eta barruko tresnak. Edestu-eziñekoa kontua!

ATENAS'ERA

Eta zelako poza Partenon, Erekteion, Propileo eta olako gauza amesgarriak ikustean!

Gero Bizantzio'tarren aleiza polit bat.

Amaitzeko, Nekatuta baiña pozik Erroma'ra, Madrid'era, Sondika'ra, etxera... Eta bizkor: Atenas'en barausi, eta Zeanurin bazkaldu dagonillaren 31'n.

OLAZAR'tar Martin'ek

GIZAUNDIAK

Irala, Kapitana

PARAGUAY

Paraguay, Argentina ta Brasil'en arteko lurraldea da. Parana ibaia da lurralde orren ardatza; eta milla leguatan luzatzen da. «Gran Chaco» eritxon sakana jotzeraiño.

Milla urezko adar eta adaxka lotzen jakoz ardatzari bere goibee luzean. Lur aberatsak dira ur-adar orreen. bitartekoak :...oso ederrak, berton jasotzen diran garau ta ortuairak, oso ugarik; ango abere taldeak; miresgarria oso, «mate» izeneko landara osasungarria.

Danetan ederrena baiña, eta mundu osoan ots andiena emon dautsona ango gizabidea da. «Reducciones» esan eutsoen gizabide bereizia, bai. Munduan iñoz egin izan dan kolon. ikuntza-saiorik aurreratuena. Eta «Charruas» eta «giarani» basati atzeratu ta gogorakaz egin be. Txomin Irala izan da Paraguay barri orren sortzaillea.

ARGENTINA

Bergarako semea zan Txomin Irala. Ogeitairu urte ebazala, bere etxe ta lurrak saldu, ta Sebillara abiatu zan. An, Peru Mendotza andikiak gertau eban Ameriketarako txangoan sartu zan. 1535'an eldu ziran Argentina'ra.

Bi millatik gora gizon ebazan Mendotzak beragaz. Eta laster eskuratu eban Argentinako goialdea, eta «Buenos Aires» uriburu egin. Ez zan baiña Mendotza basatiagaz ondo etorri; eta eraso ekin eutsoen oneek. Ainbat neke ta aduraz gaisotu, eta andik laster it zan.

GUDALBURU

Mendotzaren idazkaria izan zan Irala. Eta a galdu ondoren, gualburu biurtu zan. Eta Salazar, Gonzalo Mendotza ta Ayolas beste gualburuagaz bat, Parana edo Rio de la Plata ibai bazterrak arakatzen asi zan. Ibai orren buruan Zidarreri edo zidarrezko lur aberatsak egozala esaten eben.

Laster konturatu ziran gudariak txango luze ta arriskutsua zala txango a: ...ibaia oztopoz batea; ertzetako lurrak, baso baltzez jantziak; eta baso baltzak, basati bizkorrez josiak.

Ez ziran, gaiñera, mutillen kapitanak alkar ondo konponzen. Eta, Mendotzaren orde, bi milla gudarien buru, ta lurralde guzti orreen agintari izango zana aukeratzea erabaki eben danen artean. Gure Irala aukeratu eben, ao batez aukeratu be. Ez zan, beraz, gizon makala gure ogeitazortzi urteko mutilla!

Iralak Zidarreriako txango ori gerorako itzi, ta Parana'ko bazterrak zaindu ta jantziteari ekin eutson. Buenos Aires'en gertaturikoak eragin eutson ori. Eskuratu bako basatien lurraldean egin eban Mendotza'k bere uriburua. Eta arerioen eskuetan jausi zan laster. Andik berrogei urtetara erakiko eban, barriro, Bizkai'ko seme zan Juan Garay kapitan ospetsuak.

CABEZA DE VACA

Orretan ebillela, ona barri gaizto bat: Cabeza de Vaca gudari ospetsua aukeratu ebala Españaiko erregeak Rio de la Plata'ko lurralde guztien buru. Gudari trebe, kementsu ta lur andiak irabazia zan Cabeza de Vaca; baiña arroputs eta zital utsa. Aren zitalkeri ugariz aspertu, ta asaldatu egin ziran mutil guztiak; asaldatu, atxillo artu..., ta Irala artu eben, barriro, euren buruzagitzat.

Irala'k itsasontzi andi bat egin eta bertan sartu eban Cabeza de Vaca, ta Españiara bialdu. «Gomunero» izena ipiñi eutson ontzi orreri. «Comuneroak» Karlos I eta aren jauntxoen aurka burrukatu izan ziran urietako gizon arruntak ziran. Eta au esan nai eutson, antza, gure Irala'k erregeari : orra zelangoak diran zuk bidaltzen dauskuzuzan jauntxoak.

Ez zan ori, itxuraz, Erregearen oniritxia irabazteko biderik egokiena; baiña I Karlos zurrak gure Irala ausarta ontzat artu, ta bera izendatu eban bertoko agintari.

ZIDAR BILLA

Rio de la Plata inguruko lurralde guztien buru egin eban Irala erregeren agiriak. Eta bere asmoak betetzeari ekin eutson gure gizonak. Arresiz inguratutako uritxuak egin ebazan Parana zabalaren ertzetan; eta gudari taldetxuz jantzi. Bide erdiko Asuncion egin eban lurraldeko uriburu; eta seireun gudari itzi ebazan berton. Eta gaiñontzeko gudari bizkorrenak artu, ta Zidarreriaren billa abiatu zan bera.

«Gran Chaco» lurraldeko lintzurak igaro, ta laster asi zan Andes menditik gora. Bost milla metroko tontorrek igaro, ta azkenean agertu zan bere ametsezko Zidarreria. Baiña, au zortxarra!, Pizarro'ren mutillen eskuetan egoan.

Zer egin? Pizarrori ala berari egotzitako lurraldeak ete ziran lur areek? Ez eban Iralak olango auzirik biztu nai. Pizarro'ren eskuetan egozan bai..., eta bira emonda, bere Paraguay'ko lurraldera biurtu zan, ez bere mutillen atscgiñetan.

JENDATZAILLE

Eta zer egin eban? Aberaskirik topau ez, eta aberaski barriak sortzea erabaki eban. Sekulako abere-taldez bete ebazan Argentina ta Paraguay'ko zabaldiak; ibai ondoko lur gizenak landu; ibai ertzetan kai ederrak egin; baso baltzak erri politez jantzi; elizak eta eskolak jaso errietan...

Gero be, ango basatien agintari baten alabeagaz ezkondu zan bera. Bardin egin eben aren beste kapitan eta gudari askok be. Eta oso jendatze eder eta egokia lortu eban alkartze onek.

Gazterik il zan Irala, 44 urte ebazala. Asuncion uriburuko katedralerako zur ederretan ebillela, tropikoko gatxak jo eban basoan, eta andik laster it zan uriburuan.

Ete dago, gero, gizonik, ain epe laburrean, ainbeste gauza eder egin dauanik?

URKIOLA'K.

Kibutzak Gizabiderantz

ISRAEL ERRI-JAZARTUA

Nori ez jako arrigarri agertzen Israel erriaren kondairea?

Munduan erri jazarturik izan ba'da, bat beintzat Israel!

Munduan nortasun aundi ta berezidun erririk izan ba'da, bat Israel!

Kristo'ren eriotzea gertatu ta laster Tito Erroma'ko Agintariak austu zituan Jerusalem'eko orma zarrak eta etxeak, eta Erroma'ra eroan eban zazpi besodun argi-mutilla, erri aren ezaugarria, eta 80.000 Israeldar izan ziran morroitzen Koliseoa egiten.

Erdi-Aro guztian Juda'tarrak eta euren odolaren kromosomaren bat eukenak, madarikatuak ziran. Enda madarikatua zan Israel'darrena.

Berbizkunde aria asita, arrezkero, España'tik eta Europa guztitik atzerriratuak izan, dira eta jazarpen guztiaren arpin lez, Hitler'en Alemania'n jasan bear izan zituenak. «Holocausto» pelikulea urrutikuskiñean ikusi dabenak gogoan izango dabez. Eta an, Alemania'n judatarrai egindako ankerkerietatik % 40 ez ei zan agertzen, lotsagarria zalako kendu egin bear izan zan.

NORTASUN AUNDIKOA

Israel'darrak odolean eroan dabe erri-zaletasuna: Ia bi milla urtetan lur barik, aberria batu barik, izkuntza galduta, erritar guztiak munduan banatuta... Eta erria bizi! Izkuntza ta guzti!

Eredu ederra il-zorian dagola esaten dogun gure Euskalerrientzat!

JERUSALEM'ERA

Baiña Israel'darrak beti izan dabe Jerusalem eskuratzeko gurari bizia.

Eta astiro-astiro asi ziran.

Ara ingurueta joan, lur-zati batzuk erosi, eta txarrenak, saldrapo-lurrak erosi be, urak alboratzeko erretenak eta ugardiañak egin eta «drenaje» trebe baten bidez lantzeko egokitu... Orra or lenengo kibutzak 1925'garren urtean egin eban lan apala, erri barri baten oiñarri izango zan azi barria.

Lur-zati erosi areek ez ziran sendi batenak, sen ziran, lenengo kibutzak!

Eta gero kibutz geiago ta lan zabalagoa. Urrengo Askatasuna ta buru jabetasuna lortzeko gudea eta azkenez sei eguneko guda arrigarria. Eta orra or **ERRIA!**

ISRAEL'GO LURREN JABETASUNA

Israel'go lurrak, ia guztiak, laterriarenak dira eta ortik sortzen da lurra ondo banatzeko erreztasun berezia.

Kibutza egin gura dabenai lurra emoten jake errentan eta zergak ordaintzearen truke, baiña ba-

dagoz beste lur zati batzuk «kibutzin» ez diranak: Baserriak edo «masabin» sendi bakarrez osotuak dira eta oneik be laterriaren lurra dauke errentan, euren etxe-ostean solo ederra. Gero, alkargoak edo kooperatibak egiten dabez.

Eta ba-dira lur-zati batzuk, oso gitxi, baktotxa diranak be. Laterriak be ba-ditu bere lurrak.

KIBUTZEN ERAKUNDEA

Kibutzetako bizitzea, oso gizarteratu edo sozializatua da, baiña ez laterriaren esku, kibutza osotzen dabenen esku eta dekokrazi-bidez baiño.

Kibutzak told berezi batzuk ditu : Bizi-tokia, eta emen etxeak, eskolak, jantokia, gaisotokia ta abar; abere-lekuak, eta emen korta egokituak; tresna-tokiak, eta emen lanerako tramankuluak eta berebilla eta olakoak eukiteko aterpe egokiak. Toki berezi oneik ondo banatuta egoten dira beti.

Lan-saririk ez da ordaintzen: Bakoitxari bear dauana emoten jako eta bearrezko gauzak erosteko bear dauan beste diru. Oporraldiak ordainduta dankez. Seme-alaben ikasketak be, bertan edo ikaste-txean dauan.

Kibutzaren irabaziak iru zati egiten dira: kibutza obetzeko, lanabesak obetzeko, zergak eta olakoak ordaintzeko...

Demokrazi-bidez artzen dira ebatziak.

LAN EGITEKO ERAK

Lan egiteko arlo aundiak daukez eta ondo eratuak. Geien ateraten dabena, laranjak eta kotoia dira. Matza be bai, igaleak...

Solo arlo aundietan mamarroak ilteko eta ongariak banatzeko egazkiñak erabilten ditu kibutzak. Arloaren zatietan zenbaki aundiak ipinten dira eta egazkiñak urrengorik urrengora arloaren zati guztietan egiten dau bere lana, egokiro ta bizkor.

AKATS BATZUK

Zar-saririk, jubilaziñorik, ez da emoten, baiña zarrak bear daben guztia dauke eta diru apur bat be emoten dautsee.

Umeak euren sendiagaz egunean ordu ta erdi inguru baiño ez dabe egiten, bestea, gabez naiz egunez, euren etxe berezietan egiten dabe. Konturatu dira, antza, ez dala au eziketarako bide ona eta orain asi dira gabez sendiagaz izten. Len, urrengo egunean lan egiteko gurasoi kalterik ez egitea zan elburua.

Or dagon demokrazia muga batzun barruan ondo esitua dagoala esan lei.

Askatasuna oso laburtua da, eta erria aurrera aterateko muga orreik bearrezkotzat artu ziran.

Kibutz batzuk aberatsagoak, beste batzuk txirragoak dira eta batzango norberekeria agiri da or.

Kibutzetan ez dago sinagogarik, baten bat izan ezik. Ez ete zan Jabe Jaungoikoaren zaletasuna Israel'en ezaugarri berezia?

OLAZAR'tar Martin'ek

ERESA

GEREDIAGA IBAIZABAL ERES - ALDIAK

Bizkai'ko eres-jakintza (*) zabaldu ta gure errioko abes-batz ondasunak aberasten alegintzen diranak plazaratzeko asmoz, sortu ziran Gerediaga-Ibaizabal eres-aldiak.

Eres-aldi (*) oneek aldi (*) bitan zatituta antolatu ziran.

Udabarriko ekitaldiak igaro (*) ondoren, udazkenekoak urreratzen jakuz, Bizkai'ko ainbat eritan zear.

Nor-nori atsegingo (*) ba'leuskio entzuten joateak, ona emen egitaraua (*) :

Urrillaren 6'an Zaldibar'en. Abestuko dabenak:

- Zaldibar'eko Koral Elkartea
- Zornotza'ko Zornotza'k
- Galdakano'ko Zaletasunak
- Elorrio'ko Goikoetxeak E. N.

Urrillaren 18'an. Basauri'n. Kideko izango diranak:

- Ernani'ko abeslariak
- Zaldibar'eko Koral Elkartea
- Elorrio'ko Berriotxea
- Durango'ko Orfeioa

Urrillaren 19'an, Basauri'n, barrero. An izango diranak:

- Basauri Abes-Batza (*)
- Zornotza Abes-Batza
- Zaletasuna Abes-Batza
- Elorrio'ko Goikoetxea E. N.

Urrillaren 27'an. Galdakano'n. Abeslariak:

- Ernaniko Abeslariak
- Elorrio'ko Berriotxea
- Galdakano'ko Zaletasuna
- Durango'ko Orfeioa

Zemendiaren 9'an. Agertuko diranak:

- Zaldibar'eko Abes-Batza
- Elorrio'ko Berriotxea
- Elorrio'ko Goikoetxea E. N.
- Durango'ko Orfeioa

Zemendiaren 17'an. Durango'n. Parte artzailleak:

- Basauri Abes-Batza
- Zornotza Abes-Batza
- Elorrio'ko Goikoetxea E. N.
- Durango'ko Orfeioa

Zemendiaren 23'an Ermu'n. Abeslari:

- Ermuko Abeslariak
- Basauri Abes-Batza
- Galdakano'ko Zaletasuna
- Elorrio'ko Goikoetxea E. N.



Aurrera ba, bai abes-batzekoai, baita be entzutera zoazen guztioi.

Ordu atsegingarriak izan dagizuezala.

EGUZKITZA'tar Miren'ek

II Onetan Danok Arrate'ra

II onetan 50 urte betetzen dira Arrate'ko Ama Birjiña Sortzez Garbia koronatu ebe-la. Garai artan Aita Santua-ren ordez Mateo Mujika Gotzainak koroatu eban ain zu-zen be, 1929'ko azillaren edo azaroaren 3'an arratsaldeko iruretan Eibar'ko Unzaga en-parantzan. Bertan 15 bat mi-lla pertsona bildu ziran.



Dakizuen lez, Arrate'ko Ama Birjiña, Eibar'ko Zaindari nagusia da ta baita Euskalerrri'ko Txistulariena be.

Eibar, Ermu, Zaldibar, Berriz, Soraluze, Markina, Ondarroa, Motriku, Elgoibar, Mendaro ta inguruko beste erri batzutan be maitasun aundia dabe bertako bizilagunak Arrate'ko Amarentzat.

Beraz irakurleok il ontako Arrate'ko ospakizunak ez dira edozelakoak izango. Ez orixe!

Eguneroko edo izparringita irratiaren bidez adieraziko da jai pozgarri au noiz eta zelan ospatuko dan. Adi egon eta egun orretan danok Arrate'ra!

IBARRA'tar Bernardo

IZTEGIA

Eres-jakintza = cultura musical
Ere'esaldi = concierto
Aldi = tiempo
Igaro = pasar
Atsegin = gustar
Egitarau = programa
Abesbatza = orfeon, coral

Gotzain = obispo
Zaindari = patron (a)
Bizilagun = habitante
Ospakizun = acontecimiento
Adierazo = dar a entender, indicar
Adi egon = estar atento

Izki - Nastea

Izki-naste onetan Arrate inguruetan dagozan bost mendiren izenak agertzen dira, topatzen ez ba'dozuz ikusi azkenengo orrialdean.

B E K D O S K L L I Z T U D J
 A D N B A A M N T A B K M A
 G J A U L L I U U A K O A T B
 T X A B L U R K O B E R E S
 A M I R G U A P R A P A N G
 Z U Z D O K O G I L E D K A R
 A X T U I D T M O G S T A D U
 N I R R E L G I Z U S T O E
 U R A R I N L L T S A E R K
 A L D A R A M I N O B I T A
 I B E J S O L A P I L U S T S I

ORDUAK LABUR

Bein baten, Nafarroako euskaldun erri txiki polit batera eldu gintzazan lagun mordo bat. Gure eztarriak legoturik egozan, egarri giñan egun oso beroa zalako, eta an goaz edandegi-etxe batera egarri ori kentzera ta gero bertan patxadaz au, ori ta bestea autuetan pozik eta lasai gu:

* * *

Olango baten begiratu neban gorantza ta ara nun goiko abeluze zabalean, margo gorritz idatzita esakun eder au agiri zan: «LAGUN AUNDIAKIN ORDUAK LABUR».

Benetan esaera txukun eta ederra!

Idazteunak be badiño: Lagun ona saririk ta aberastasunik aundienetakoa dala.

Gizona jatorriz lagun zale da.

Bakarrik egotekoa ez.

Gizonen artean lagun zintzo bat aurkitzen ba'dau, zorionekoa da.

Adiskideagaz alkartzera doa al dauan guztietan.

Adiskideakaz astia igarri barik joako. Orregaitik «Lagun aundiakin, orduak labur».

* * *

Orixer berberori jazo jakun niri ta nire lagunai, lagun aundiak giñalako, arratsaldea igarri barik igaro jakun eta ia ia etxera biurtzeko orduak iges egin euskun.

Emengo lan, arazo ta neke guztien osakairik onena ta indartsuena adiskidetasuna da, zalantzarik bago.

Benetako adiskidetasunak dana bigundu ten dau.

Bata bestearen lagun ba'gintza ez legoke ez gudarik, ez gogorkeririk, ez ilterik ez ta burruka ta asarrerik.

Sendi alkartuak adiskidetasunetik sortzen dira: Erri baketsuak adiskidetasuna dabe euren oñarri.

Orregaitik guztiok, alegindu bear geunke gure artean adiskidetasuna sortu ta indartzen.

Danen arteko adiskidetasuna noiz lortuko da gure artean?

* * *

Gure erri larri onetan iñondik agiri da adiskidetasunik?

Iñoiz baiño bananduago gagoz.

Eguneroko jokerea, ikusi eziña da.

Gorrotuak gure adimena lainotu ta illundu dau. Edo sozial arazoak dirala, e ta politika arazoak, bizitza latza daroagu.

Noiz ikusi dogu gure erria alkar ilten? Gaur baiño geiago, iñoiz be ez.

Danen arteko alkartzea lortzeko, ba -dakikigu nun dagoan biderik artezena ta eginkorrena: kris an.

Geiago esango neuke, bera dala bide bakarra, baiña ikusten dot tamalez kristautasun ori gure errian otzituz doala.

* * *

Nagon ixillik! Ez negar larregi!

Itxaropena indartu dagigun!

Negar larregi egiteak eta kikilduteak galmenera garoaz.

Begiak argi, biotzak alai eta jo ta ke, lan dagigun adiskidetasuna, sendietan, alderdietan, lantegietan, jolasetan eta alde guztietan ereiten.

Orduan bai esan geinkela: «LAGUN AUNDIAKIN ORDUAK LABUR».

Orduan bai esan geinkela: Merezidau gure errian biziteak.

Orduan bai euskal erria munduaren eredu izan leitekela, ostera antxiñako entzute ona bir-artuaz.

Euskaldunok lagun aundi egiñaz aurrerantzean be erririk onena ta zoragarriena izango gara.

GALLASTEGI'tar Kauldi'k

ARAUDIARI

1

Emeretzireun urte jasota
iruta emeretzian,
«Estatutua» baieztu dabe
ri7adrid'eko Aldundian;
esan daikegu egon gaizala
Euzkadi'n be onartzian,
anañtasunez asarre barik
euzkaldunezko bidian.

2

Gernika'n einda «Estatutua»
Euzkadi'ren onerako,
baiña Madrid'en «Estatutua»
onartu ez eurentzako;
orregatikan Nabarra ta «fop»
geratu euren aldeko,
era ortako «estatutua»
ONA alda danontzako?

3

Izan ez arren «estatutua»
dana Gernika'n ein dana,
goguan artu bear dana da
Madrid'darrai kendu jakena;
urte mordotan eduki ez da
orain lortu deuskuena,
esan daikegu geien-geienok
«ONTZAT ARTZEA ONENA».

4

Ludi onetan ez gagoz iñoiz
guztioz iñon batera,
orreitxik oiñ be «estatutua»
danak ez dauz onartzera;
eskuindarrak izan ez bestek
dagoz Euzkadi'n aldera,
baiña espaiñar eskoitar orreik
bai beti gu zapaltzera.

5

Euzkadi'kuok kontuz ibil ba
Auteskunde egunean,
gero balio ez deusku bage
atz eite buru ganean;
itzaldietan jarri giñake
zalantza «duda» unean,
zalantza ori kentzen saiatu
berandu baiño lenean.

6

Esan daikegu asko ein dana
«fop»'etarrak kenduteko,
eta batezbe Nabarra Erkia
Euzkadi'n barrun sartzeko;
Erri geienan naia izanda
Orreik orrela eiteko,
JA UNGOIKUA TA LEGE zARRAK be
Euzkadi'ntzat izateko.

7

Poza eduki dogu geienok
EUZKADI' tik <fop> kentzeko,
Euzkadi'n orreik beti dituguz
euzkotarrak zapaltzeko;
orain etorri garaia eta
barrun orrek geratzeko,
oker andia agertzen bait da
EUzKAL-ERRIA ' RENT ZAKO.

8

Euzkadi'n autarkia dugunok
bear ditugu pentsatu,
gure autarkiz «BAIETZ-INGIA»
bear geunke guk aurkeztu;
urte mordo tan egin gaituez
etsai gogorrrak PAIRATU,
aurrerantsean ez egiteko
«BAIETZAZ» NEU arduratu.

9

Batzarretako itzaldietan
entzungo dogu itz asko,
batzuk ezetza, bestek baietza
ta bestek uko eiteko;
nire ustetan ONA izango
Euzkadi'n geienontzako,
ARAUDI ortan dana ez ba'dau
urrengoz dana sartuko.

10

Lortzen asiaz esperatza dau
urrengoz dana lortzeko,
gure asabai kendutakuak
geureak ditugulako;
guk ez dogu nai Madrid'darrenik
iñolaz be guretzako,
baizik nai dogu geure-geureak
orreik beti ESKATUKO.

Azpeitia'tar GOTZON'ek

GURE IZEN ONA

ANTXIÑATIK

Euskaldunak izen ona izan dogu mundu zabalean: Berbako gizonak, biotz onekoak, langilleak, erlejiñotsuak...

Eta izen on ori Euskalerritik kanpoan bizi ta ibilli izan diran gizonak emon dauskue, batez be. Orrein artean itxaskariak, mixiolariak, guda-gizonak eta olakoak.

Kanpotik ona etorri diranak be gure gizartearen entzute ona zabaldu dabe bazterretan eta orregaitik urterik urtera ugariago etorri izan dira.

GAUR GALDUTA

Gaur, zori txarrez, eta mingarria da esan-bearra, euskaldunok izen on au galduta daukagu.

Euskalerria aitatzea munduko bazter guztietan, gudea, gorrotoak, eriotza gogorak, lapurretak eta olakoak gogoratzea da.

España'tarren artean gagozenezan isil-isilik egoetea izaten da onena. Olako arazoren bat berbetara sartzen ba'da, an urtetan dau urtetekoak! Iñon diranak esango dautzue eta zeu egingo zaitue emen izan diran edo eurak izan dirala uste daben oker guztien errudun. Olakorik!

Eta au ez da atzoko kontua. Urte batzuk lenagotik datorrena da. Ez dabe gure arazorik ulertzen eta ulertu gura be ez.

Ameriketari antzera jazo da. Ez dago lengo girorik euskaldunen alde!

Eta ezagunak garan mundu guztian, antzera.

ASKATASUNA BEIÑAGO

Batek baiño geiagok esango dau bear ba'da: Eta zer egiten dogu lengoen lako koipekeriakaz, askatasun bako erria ba' gara? Emen burrukea egin bear da eta burruka gogorra ezer lortu bear ba' dogu!

Or be ba-dago errazoi apur bat, neure ustez. Maite gaituen gizaki orreik ez dabe konturatzen gure Erriaren egoera larria eta il-zoria.

Zalantza barik, askatasuna griña biziz billatu bear dogu, baiña erri baketsuaren bideak ez ete ziran bakezko bideak eta berbako erriak ez ete eukan bere bidea?

Iñork ez dauala jaramonik egiten? Ekin eta ekin izango zan gure irabazia.

URTEEN URTEZ

Izen on au aberastasun aundia izan da gure erriarentzat eta estualdietan laguntza aurkitzeko era be bai.

Izen on au ber-eskuratu egin bear dogu ba.

Baiña euki genduana urteen urtez lortua zan, eta galdu bizkorrago galdu ba' dogu be, ber-eskuratzea urteen urtez egin bearreko lana izango da.

Eman da zabal zazu munduan frutua.

GAMIZ' ek

Agur

Ezeizu negar, amama
nualako itxaso-ziar
Amerika'tik onañ
egin leiteke egunian.
An egiten da errazez
emen diñoguna: eziña.
* * *

Or dago, berba ta berba
itxaropenez betia.
* * *

Bai... Gomutara datorkit
udean, baratzian,
ate-onduan, ostopian
abia ostenduta,
len arrautzak, gero umiak

pozik ikusi geuzan.
Azi, ta eguak indartu
ba-dabiz inguruan,
baita azartsuena dua
abarrarik abarra;
Eguzki epel azpian
dana da poz-alaya.
* * *

Eguna dua ta gaba
izaten da illun, otza
...ta bijaramon goizian
baratzan, iñudian,
agertu zan otzak ilda
geure txindor gaixua.
* * *

Bai, erraz etorri leike
Amerika'tik ona.
* * *

Igaro dan guda-ekaitzak
ayenatu euzkotarrak
batzuk Amerikan bertan, azi dabe
Orain zarrak Aberrira /sendia
bigurturik begiak
gura leike etorri, bada,
eztau gura sendiak.
Baten-batzuk juan etorri
egiten dabenian
negarrez agurtuten dauz
euzkotar gixajuak.

UTARSUS

EUSKERAZALEAK

EGUNEROKO ORRITXUA

Len izaten ziran eguneroko orritxua irakurteko emoten euskuen egutegi euskaldunak. Arantzazu'ko lekaideak ateraten eben bat, baiña, ez dakit zergaitik, itzi eben; eta orain astean orri bat emoten dauana atera dabe.

Eta ez jako jenteari ain atsegin !

Axe eguneroko orritxua gura dau jenteak.

* *

Antxiña ez dala, aita euskaldun jator batek auxe esan eustan: Nire etxean seme-alabak egutegiaren eguneroko orritxuaren bidez gauza asko ikasi dabez. Irakurten be bai.

*

Olan dala, eta oitura ori ez galtzeko, EUSKERAZALEAK taldea egutegitxu bat gertatzen dabil.

Eguneroko orria emongo dau. Eta orriaren aurrean, eguzkiaren sertu-urten orduak, eguna, illea eta egun aretan beteten diran iru urteagarren garrantzitsuak. Gero jaiak, santuak ..

Eta atzeko aldean, ipuiñak, jakingarriak, idazleen barriak, kondairako jazoera gogoan-garriak, onu egokiak... eta zenbat gauza!

Egutegi polita izango dalakoan diardugu lanean.

* *

Olakoak zabaltzea izaten da urrengo lana eta orretarako ez daukagu larregi nork lan egiñik. Oso lanpetuta bizi da jentea gaur !

Baiña aurkituko dogu bide egokiren bat !

Abendurako gertu izango da EUSKERAZALEAK taldearen egutegia!

Izki-nastearen erantzuna

B	E	K	D	O	S	K	L	L	I	Z	T	U	D	J
E	A	D	Ñ	B	A	A	M	Ñ	T	A	B	K	M	B
G	J	A	U	L	L	I	U	U	A	K	O	A	T	B
U	T	X	A	B	L	U	R	K	O	B	E	R	E	S
P	A	M	I	R	G	U	A	P	R	A	P	A	Ñ	G
Z	U	Z	D	O	K	O	G	I	L	E	D	K	A	R
A	X	T	U	I	D	T	M	O	G	S	T	A	D	U
E	N	I	R	R	E	L	G	I	Z	U	S	T	O	E
D	U	R	A	R	I	N	L	L	T	S	A	E	R	K
G	A	L	D	A	R	A	M	I	Ñ	O	B	I	T	A
I	B	E	J	S	O	L	A	P	I	L	O	Ñ	S	I

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.

